

EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 30koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Kontseilu Errektoreak 2024ko urtarrilaren 29an onartutako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2024rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa argitaratzea agintzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko legezko erregimenak dirulaguntzak ematea proposatzen duten administrazio publikoen edo enteentz premia zehazten du, betiere erakunde horiek dirulaguntzen plan estrategikoa bat badute.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 1/15 Zirkularraren bidez zehaztu zituen funtsezko jarraibide batzuk plan hori egiteari dagokionez.

Horri begira, eta ikuspegi osoa eskaintzeko, eta horrekin batera efikazia- eta efizientzia-mailak areagotzeko, eta publizitatea eta gardentasuna bultzatzeko, 2024rako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa honek 2024ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legean bildutako aurreikuspenak biltzen ditu (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 247. zk., 2023ko abenduaren 29koa).

Ilido horretan, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen eskumenak kontuan izanda, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Kontseilu Errektoreari dagokio 2024rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea, eta Kontseilu Errektorearen 2024ko urtarrilaren 29ko bilkuran gauzatu da onarpen hori.

Zirkunstantzia horiek kontuan izanda, 2024rako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa argitaratzen da.

Azaldutako horiek horrela, honako hau

EBATZI DUT

Bakarra.- 2024ko urtarrilaren 29an Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Kontseilu Errektoreak onartutako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2024rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa dagozkion bitarteko ofizialen bidez iragarri dadila agintzea eta, edozein kasutan ere, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webgunean txertatuta www.elankidetza.euskadi.eus.

Sin.: Paul Ortega Etcheverry

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.